


Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 27a / 277. zenbakia

20002
urteari
begiratuwa
ARETXABALETA



Aretxabaletako Industrialdea F-0-4 20550 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943 791844 / Faxe: 943 792941 info@eguzkigraf.com

EGUZKIGRAF

inprimategia



*Gabonak Zoriontsu eta bakean
pasa ditzagun.*
Arte Berri On!

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



ATE IRRISTAGARRIAK
HORMAN SARTUTA:
LEKU GUZTIA
APROBETXATZEKO



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarraillak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROTZEGIA

Telleria 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 88 40 20

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Jar zaitez profesional
espezializatuen esku.

Zure osasuna gure ardura da.



ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA





Partikularrekin eta seguru
etxeekin lan egiten dugu:
(Lagun Aro, Adeslas, Mapfre,
etab.)

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE
ZENTRUA



Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Telf.: 943 79 95 64 • Gipuzkoa

KALEINKESTA/ Zela balorauko zeuke 2002. urtie? Eta 2003. urtiari ze eskaketan dutzezu?

ROSA AGUARON
JubilaeTXOMIN TORRES
LangillieXABIER IGARTUA
LangillieJONE URIBETXEBARRIA
LangillieKONTXI MUÑOZ
LangillieISIDORO BLANCO
Langillie

Datorren urtie aurtengue baiño hobia izetie espero dot. Gehixenbat, politika hobia eta Hirugarren Mundurako gauza gehixago egotie espero dot. Hori faltau izen jako 2002. urtiari.

Pertsonalki, urte normala izen dala esango neuke. Ez jat aparteko ezer pasau. Datorren urtiari begira be ez dot ezer haundirik eskaketan. Gauzak daguzen moduen jarraitu daixiela.

Mundu maillan nahiko urte kaxkarra izen dala esango neuke. Giza arluen eta ekonomian be ez da aurrerapausorik egin. Datorren urterako pakie eta askatasune eskatuko neuke.

Pertsonalki, urte ona izen dala esango neuke. Euskal Herriari dagokixonez, barrez, ez da oso positibue izen. Urte barruari begira, Euskal Herriko egoerie hobeketie gureko neuke.

Profesionalki, urte ona izen da: oposiziñotako azterketie gainditu dot. Datorren urtiari, batez be, lan fijue eskaketan dutzet. Horretaz aparte, giro politikue hobeketie be gureko neuke.

Osasunari dagokixonez, 2001. urtie nahiko eskaxa izen zan. Aurtengua, barrez, osasunari begira urte hobia izen da. Datorren urtiari, batez be, osasuna eta lana eskaketan dutzet.


ETABARRUAN...

UDALAREN JARDUNA/ Zelakoa izan da Udalaren jarduna?

GAINBEGIRATUA /3
URTEA DATUTAN /4
ONENA ETA TXARRENA /5
IRUDIAK /22

URTEARI GAINBEGIRATUA

Urtarrila /6
Otsaila /7
Martxoa /8
Apirila /9
Maiatza /10
Ekaina /12
Uztaila /15
Abuztua /16
Iraila /17
Urria /18
Azaroa /20
Abendua /21



ANJEL BERGARETXE / Alkatea

Urtearen balantzea

Bukatzeaz dagoen urteko balantzea egiterakoan, espainiar faxismoa mintzagai izan behar. Izan ere, azken hilabeteetako, Euskal Herriak aspaldian jasan duen erasorik bortitzena izan da. Tristeena, ordea, gure erkideen artean kolaboratzaileak aurkitu dituztela da. Hitzek kontra dau den "abertzale" eta "progresistak", ekintzez madrildarrei men egin die berriz ere. Garzonen aginduak onartu ez baina bete bai!

Herrira itzuliz, legealdi hasieratik agertzen ez zen PSOEko zinegotzia berriz ikusteko aukera izan dugu. Eta zein egun aukeratu zuen bere berragertzerako? Ba aurrekontuak eztabaidatzen zirena. Horrela, hauen kontra bozkatzeko aukera izan zuen PNV/EArekin batera. Kasualitatea? Beste arrazoi bat ere bazuen, politikoei ematen zaien diru laguntza berreskuratzea. Hau da hau interesik gabe herriaren zerbitzura egotea!

PNV/EAk maiatzean aurrekontuei ezetza ematearen arrazoa urrian eza-gutu dugu: ikus entzunezkoen areto proiektuarekin ez zeuden ados. Euren botoekin onartu zen proiektu hau egitea, baina oraingoan ez zeuden ados. Honen aurrean frustrazioa sentitu dut herrian horrelako azpiegitura gabe jarraitu beharko dugu-lako. Amorrua, hiru urtetan adar joka izan ditugunaren irudipena geratzen zaidalako, eta beldurra, ezer

"Izan ere, azken hilabeteetako, Euskal Herriak aspaldian jasan duen erasorik bortitzena izan da"

egiteko gogorik ez dutelakoan nagoelako. Tronpatuko al naiz! Baina gauza onak ere izan dira, eta horrelakoren batekin bukatu gura nuke. Bainuetetik Urkulura doan bidegorria martxan da, eta antza denez arrakasta dezente izan du. Ea ba, bertakoa ez den espezie arraro hori (automobilak, alegia), gutxitzen den Urkulun. Ahalegindu gaitzen datorren urtea hobia izan dadin. Jai zoriotsuak eta urte berri on!



M. J. ARETXAGA / Herritarra

Agur 2002 urteari

Ai amatxo! Zelako aguro pasatzen diren urteak. Urte bukaera heldu zaigu, eta zelan ez, neure balorazioa egin beharko dut. Badut zer kontatu, berri onak eta beste batzuk ez hain onak, betiko antzerara. Herrian aldaketa ugari izan dira, eta horietxek kontatzen hasiko naiz. Hasteko txikientzat eta hauen gurasoentzat hain garrantzitsua den haurtzaindegia. Haurtzaindegi berria daukagu, lehengoa baino handiagoa. Espero dut ume danentzat lekua izango dela aurrerantzean bertan. Nagusia-goentzat ere ludoteka berria jarri dute. Leku aldetik behintzat lehengoa baino askoz hobeto kokatua dago. Neska-mutikoak lasai ibil daitezke barruan eta baita kanpoan ere. Industrialdea ere hobeto kokatuta gelditu da. Beroa lantegia Bainuetxera joan da, eta hemendik aurrera honek botatzen dituen keak ez ditugu

arnastuko. Aldaketa onuragarriak, beraz, herritarrontzat. Kirola egiteko aukerak ere areagotu egin dira. Urkulura doan bidegorriak, oinezko ibilaldiak egiteko eta bizikletan ibiltzeko aukera paregabea eskainiko du. Oraintxe bai aprobetxatuko dudala bizikleta berria erosteko. Linean jarriko naiz. Baina dena ez da larrosa kolorekoa izan. Aurten ere zinema barik gaude. Non pasatuko dituzte gazteek domeka arratsaldea?

"Datorren urterako zine eta antzoki berria eskatuko dizkiot Olentzerori, aber behingoan kasu apur bat egiten didan"

ak? Zine berria egiteko proiektua egin zegoen, baina azkenean ez da onartu. Berriz ere lehengotan gelditu gara, ezebe barik. Datorren urterako zine eta antzoki berria eskatuko dizkiot Olentzerori, aber behingoan kasu apur bat egiten didan. "Olentzero maitea: aurtengo urtean, mesedez, ez ekarri ikatz gehiago. Datorren urterako, berriz, zinema eta antzoki berria gurako nituzke. Eskerrik asko".

Aretxagazeta

2002
urteari
begiratua
ARETXABALETAKO

Aretxagazeta

Durana, 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com


ZUZENDARIA
Aintzane GardokiERREDAKZIOA
Iratxe Bengoa
Mirari Altube
Amagoia LasagabasterMAKETAZIOA
Goio AranaPUBLIZITATEA
Ziortza MartinZUZENTZAILEA
Sergio AzkarateLEGE-GORDAILUA
55-378-94ISSN
1134-2609TIRADA
4.100 aleGoiena
Komunikazio ZerbitzuakEusko Jaurilaritzako
Kultura SailaGipuzkoako
Foru AldundiaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

URTEA DATUTAN

Urtea joan da eta hainbat kontu, irudi eta datu utzi dizkigu gogoan. Datuak kontuan hartzen hasita mila zerrenda egin daitezke, baina guk bi eratakoak egin ditugu: alde batetik, aisialdia hobeto pasatzen laguntzen

diguten egunkari, liburu, aldizkari eta bideo hartuenak zeintzuk izan diren jakin gura izan dugu; eta, bestetik, herrian jaiotakoan eta hildakoan zerrenda dago. Datu guztiak abenduaren 19ra bitartekoak dira.



LIBURU hartuenak

- ELEBERRIAK**
- 'SEÑOR DE LA GUERRA' Toti Martínez de Lezea
 - 'Los Pilares de la Tierra' Ken Follett
 - 'La hija del curandero' Amy Tan
- ELEBERRIAK EUSKARAZ**
- 'Atlas sentimental' Patxi Zubizarreta
 - 'Lagun izoztua' Joseba Sarrionandia
 - 'Obabakoak' Juan Mari Irigoien
- UMEEN LIBURURAK**
- 'Harry Potter eta Azkabango presoak' J. R. Rowling
 - 'Takolo, Pirritx eta Porrotx hondartzan' Mixel Murua

BIDEO hartuenak

- 'EN QUE PIENSAN LAS MUJERES' Nancy Meyers
- 'Lo que la verdad esconde' Rorbert Zemeckys
- 'Gente Pez' Jorge Iglesias
- 'Lucia y el sexo' Julio Medem
- 'El pacto del los lobos' Christophe Gans
- 'El bola' Achero Mañas
- 'Destino de caballero' Brian Helgeland
- 'Amelie' Jean-Pierre Jeunet
- 'El hijo de la novia' Juan Jose Campanella
- 'Antes de que anochezca' Julian Schnabel

Urtean JAIOTAKOAK

- URTARRILA**
- Yaiza Magallanes Sebastián
 - Beñat Elkorobarrutia Lasa
 - Markel Pérez Arregi
 - Unax Barranikua Agirre
 - Gorka Vales Martínez
 - Irati Lete Castro
 - Ander Urreta Ortiz
 - Joanna Pérez Nevado
 - Kaiet González Altuna
 - Garazi Estévez Guede
 - Ane Dacosta Lazkano
 - Aitor Caballero Camaño

- OTSAILA**
- Ainara Zugasti Santamaría
 - Leire Bravo Pagalday
 - Urko Lazkano Ozaeta

- MARTXOA**
- Haritz Ibane Etxebeste
 - Unai Urrutia Vázquez
 - Irati Urrutia Domaika
 - Priska González Sánchez
 - Alba Vinagre Galán
 - Iker Pérez Gastañaga
 - Malen Urkia Garcia
 - Ander Fernández Sillero
 - Sara Gil Polo

- APIRILA**
- Nora Ugalde Aranzabal
 - Xubane Garai Lazkano
 - Axel Armendia Etxeandia
 - Lorea Ciuba Fernández
 - Alaitz Mugia Peñacoba

- MAIATZA**
- Iban González Seijo
 - Marina Carcía Carrasco

- EKAINA**
- Jurgi Zuazua Nogueiras
 - Irati García Aranzadi

- UZTAILA**
- Rui Andrade Loureiro
 - Maria Zubillaga García
 - Eñaut Oskoz Zuazabeitia
 - Julen Martínez Jausoro
 - Julian Bellinchon Astigarraga
 - Laia Arriola Serrato

- ABUZTUA**
- Ione Esperesate Arenaza
 - Uxue Uribetxebarria Madinabeitia
 - Narrea Otxoa Espeso

- IRAILA**
- Dana Morán Olea
 - Oier Zumarraga Aranburu
 - Eneida Iglesias Herrero
 - Amaia Uribetxebarria Eraña
 - Nora Carmona Alonso
 - Ander Telleria Berezibar

- URRIA**
- Manex B. de Heredia Altube
 - Julene Mediavilla Andrés
 - Alaia Barandiaran González de San Roman
 - Lore Lezeta Iturbe
 - Mikel Garro Pardo

- AZAROA**
- Alaitz Aguirre Aldalur
 - Miren Urzelai Herrán
 - Josu Unamuno Uribe
 - Eduarne Martínez Monasterio

- ABENDUA**
- Samuel Ramírez Iñiguez
 - Garazi Belaustegi Eraso

Urtean HILDAKOAK

- URTARRILA**
- Pilar Leibar Makazaga (80)
 - Timoteo Pablo Ortiz (89)
 - Cristina Peña Etxeberria (80)
 - Jose M. Zubizarreta Garai (80)
 - Alberto Ferreira Freitas (75)
 - Eduardo Urkia Astola (72)

- OTSAILA**
- Jeronimo Olaziregi Lasa (76)
 - Juan C. Goikoetxea De Miguel (47)
 - Felix Orobengoa Bilbao (82)

- MARTXOA**
- Iñaki Galfarsoro Madariaga (29)
 - Maria Arenaza Lasagabaster (93)
 - Tina Posadas Hilario (71)
 - Joseba Elkoro Oianguren (27)

- APIRILA**
- Maria Aranzabal Beitia Ruiz de Azua (87)
 - Ildefonso Domínguez Barbero (82)
 - Benita Zubizarreta Galfarsoro (76)

- MAIATZA**
- Santiago Filarmendi Jonsansoro (45)

- EKAINA**
- Mari Carmen Corres Narváez (78)
 - Gregorio Isasisasmendi (74)
 - Antonio Berasaluze Axpe (82)
 - Estefanía Gutiérrez Micharel (79)

- UZTAILA**
- Carmen Regatos Corral
 - Jose M^a Calzón Fuente
 - Nerea Martín Urzelai

- ABUZTUA**
- Boni Diez González (84)

- IRAILA**
- Manuela Dávila Carrasco (81)
 - Asier Sastre Estévez (22)
 - Leandro Luelmo Alonso (84)

- URRIA**
- Bernarda Ugarte Eguren (85)
 - Maria Jauregi Urzelai (82)

- AZAROA**
- Emperatriz Oñate Díez (73)
 - Pedro Kortabarria Okaranza (84)
 - Gregorio Basauri Arkarazo (75)
 - Guadalupe Rodríguez Cabello (80)

EGUNKARI salduenak

- 'EL DIARIO VASCO'
- 'Gara'
- 'Marca'
- 'Deia'
- 'Mundo Deportivo'

ALDIZKARI salduenak

- 'PRONTO'
- 'Hola'
- 'Qué me dices'
- 'Interviú'
- 'Muy Interesante'

Egunik BEROENA

2002ko ekainaren 17a

37 °C

Egunik HOTZENA

2002ko urtarrilaren 12a

-3 °C

Egunik EURITSUENA

2002ko urriaren 9a

47,9 L




Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79
ARETXABALETA



URTE BERRI ON!

ONENA ETA TXARRRENA



ALVARO ZUBILLAGA
Basotxo Elkarteko presidentea



OIER ETXEBARRIA
Aretxabaletako Pastoral Kontseilua

↑ BASOTXOKO KUDEAKETA
Udalak ordenagailua utzi zigunetik, asko hobetu eta erraztu da Basotxoko kudeaketa. Aipagarria da, era berean, prestatu ditugun ekintzei bazkideek eman dieten erantzuna.

↑ LEINTZ PASTORAL BARRUTIA
Leintz Pastoral Barrutia eta Abade Taldea eratzea oso positiboak izan dira. Gotzainak egindako bisita eta familia katekesiaren lehen zikloa osatzea ere aipatuko genituzke.

↓ ZERBITZU FALTA
Basotxoko bazkideendako zerbitzu gehiago sortzea falta da. Aurten, adibidez, ile apaindegi zerbitzua jarri gura genuen Basotxon, baina oraindik negoziaketan ari gara Udalarekin.

↓ PARROKOARI AGURRA
Parrokiaren proiektuaren inguruan sei urteko elkar ulertzea izan ondoren, Antonio Astigarragak joan den irailean utzi zion Aretxabaletako parroko iza-teari. Faltan sumatuko dugu.

Urtean gorabehera eta kontu asko izan dira. Batzuk onak, beste batzuk erdipurdikoak, eta txarrak ere bat baino gehiago. Denok ditugu 2002. urtean gertatutako kontutxo eta pasadizoak. Hala, urteko onenaren eta txarrenaren inguruan hausnarketa txiki bat egin dezaten eskatu diegu hainbat herritarri. Zazpi izan dira aukeratuak, eta elkarte edo talde baten irudi direlako eskatu diegu euren iritzia. Hona hemen haiek esandakoak.




NAIARA OLABARRIA
EPEH Plataforma



OLAIA URZELAI
Ludoteka



NEREA ELORZA
Loramendi Euskara Elkarte



AGURTZANE ELKORO
Kirol zinegotzia



INMA MIGEL
Kultura teknikaria

↑ HERRITARREN PARTE-HARTZEA
EPEH Plataformak aurten antolatutako ekintza ugarietan herritarrek erakutsitako parte-hartzea eta eman diguten erantzun ona azpimarratu gura genuke, gauza positibo bezala.

↑ LOKAL BERRIA
Askok eskertu dugu ludoteka berria. Lehengo lokalari falta zitzaion guztia dauka lokal berriak: bi komun eta espazio handia. Egin ditugun ekintzen arrakasta ere aipagarria da.

↑ LUDOTEKA BERRIA
Ludoteka berria zabaltzea oso positiboa iruditu zaigu. Urte asko daramatza Loramendik ludotekarekin batera lankidetzan, eta lokal berria zabaltzea aurrerapauso handia izan da.

↑ KIROL ETXEA
Kirol etxeak eskaintzen dituen ekintzak eta beronen funtzionamendua asko hobetu direla uste dut. Kirol Txartel Bateria proiektua ere positiboa iruditu zait.

↑ UDALEKU IREKIAK
Jende asko apuntatzeaz gain, begirale lanetan ibili zen gazte taldea ere oso arduratsua izan zen. Giro bikaina izan zen udalekuetan. Kepa Junkeraren ikuskizuna ere aipatuko nuke.

↓ KONPROMEZU FALTA
EPEH plataforma sortu zenean, herriko talde ezberdinek hitzarmen bat sinatu zuten. Gaur egun, hitzarmen hori sinatu zuten talde batzuen konpromezu falta azpimarratuko genuke.

↓ GURASOekin BATZARRA
Orain arte, batzar bakar baterako deialdia egin dugu, baina ez zen guraso bat bera ere gerturatu. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu ludotekaren gainean gurasoek duten iritzia jakitea.

↓ KULTURA ARETOA
Kultura aretoaren proiektua atzera botatzeak pena handia eman zigun. Horrelako proiektu batek kultura ekintzen eskaintza asko aberastuko luke. Ea aurrerago proiektua berrindartzen den.

↓ EMAKUMEZKO KIROLARI GUTXI
Gazteen artean geroz eta kirol gutxiago egiten da. Batez ere, emakumezkoetan igartzen da hori: 14 eta 20 urte arteko nesken artean %10ek baino gutxiagok egiten dute kirola maiztasunez.

↓ KULTURA ARETOA
Azkenean kultura areto berria egiteko proiektua atzera botatzea izan da, nire iritziz, aurtengo gauzarik negatiboena. Itxaropen handiak nituen kultura aretoaren proiektu horretan.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

INDUSTRI HORNIDURAK



MEMESA

Tel.: 943 71 24 25 / Fax: 943 71 22 98
ARETXABALETA - ARRASATE - OÑATI

URTARRILA



"Ikasleok ere, langile guztiek bezalaxe, geure ardurak izaten ditugu"

DEIANE ARRIETA /IKASLEA

2002-01-11



"Arazoak herritar gisa gure betebeharrak ez ditugulako betetzen sortzen dira"

FELIS B. DE HEREDIA / LANGILEA

2002-01-25



XVIII. mendekoa izan zitekeen ezkia bota zuen haizeak

Urte hasierarekin batera heldu zen haize zakarrak udaletxe osteko lorategian zegoen ezki ederra bota zuen errekarra. Adarrak Lausitta auzoko jolaslekuraino heldu ziren, baina, zorionez, ez zuen inor harrapatu. Edozelan ere, izugarritzko zuloa utzi zuen udaletxe osteko parkean. Zuhaitza XVIII. mende hasierakoa izan zitekeela adierazi zuten. /2002-01-11

ARETXABAETA SARIA

Hiruax Taldeari eta Pilota Taldeari Aretxabaleta saria

Urtarrilaren 19an banatu zituzten, bigarren aldiz, Aretxabaleta sariak. Aurtengoan, Hirugarren Munduaren aldeko Hiruax Taldeari eta Pilota Taldeari eman zieten saria.

Aretxabaleta sariak, lehenengo aldiz, 1997ko otsailean

eman zituzten. Aretxabaletako jendeak egindako lana eskertzea da sari horien asmoa. 1997an, Iñurrategi anaiei, nagusien eta gaztetxoan akordeoi orkestrei, Joseba Larrinagari eta UDA elkarteari eman zieten Aretxabaleta saria. /2002-01-25

LOTERIA

Bi milioi euro baino gehiago tokatu ziren Loteria Primitiboan

Urtarrilaren 17an, bi milioi euro baino gehiago tokatu zitzaizkion Iber loteria-administrazioan zigilua jarritako apustu bati (340 milioi pezeta inguru). Oraindik ez dakigu irabazlea zein izan zen, baina maiatzean, Las Vegastik postal bat bidali zuen Iber loteria-administrazioari. /2002-01-18

HILEKOESALDIA

"Herri bakoitzak bere kultura bultzatu behar du, hor baitago herrien aniztasun eta aberastasuna"

LORE ABARIK / LANGILEA

2002-01-18

HILEKODATUA

2.500

GIDA KOMERTZIAL BANATU ZITUZTEN HERRIAN

Inguruko herrietako enpresa eta taberna guztien berri ematen duten 2.500 gida komertzial banatu zituzten herrian. /2002-01-18

KOMERTZIOAK PEZETAK ALDATZEN

↑ Nahiko pazientzia izan zuten herriko dendariak eta tabernariak pezetatik eurorako trukeak egiteko. /2002-01-11

AUTOZ JOSITAKO KALEA

↓ Urte hasieran, Eroski aurreko kalea automobilerak jositako egoten zen, eta hainbat arazo sortzen zituzten. /2002-01-25

AIPAGARRI



JONAN LARRINAGA
Futbol jokalaria



KEPA URRIA
Euskal Presoa




MARI PAZ VÁZQUEZ
Dendaria

UDAk preferentean 10 urte baino gehiago egin ondoren, Jon Ander Larrinagari urrezko intsignia eman zion UDak, 2001eko abenduaren 30ean. /2002-01-11

Joan den urtarrilaren 29an, Kepa Urrak 10 urte bete zituen kartzelan. Kepa Urrari elkartasuna adierazteko hainbat ekintza egin zituzten herrian. /2002-01-25

Urtarrilaren 7an, Udaleko Kultura Sailak Erakusleiho Lehiaketako sariak banatu zituen. Aretxabaleta Iturgintzari eman zioten lehen saria. /2002-01-11

SANTA AGEDA EGUNA DELA-ETA, UDALA KEZKATUTA /2002-01-11



ANJEL BERGARETXE
ALKATEA

Ze iritzi duzu Santa Ageda Egunaren gainean?

Kantuak ez dira behar bezala ikasten, baserri eta etxe guztiak ez dira pasatzen, dantzan ere hala-hola egiten da... Nire ustez, ohitura galduz doa, eta berreskuratu beharra dago

J.J. ITURGIINTZA


IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

Zorionak eta urte berri on!

MITARTE 15
ARETXABAETA

☎ 943 793 187



OTSAILA



"Txiki-txikitatik sortu behar da kirolerako zaletasuna"

NAGORE ERAÑA / KIROL KOORD.

2002-02-01



"Gaixotasun berriak azaltzea ez da hain harritzekoa, gizadia ere garatzen baitoa"

ARANTXA JAKA /IRAKASLEA

2002-02-15

HILEKOESALDIA

"Santa Ageda mutilak, suziriak eskuan dituztela, cowboy-ak balira bezala herriaren jabe egiten dira"

AITOR AGIRIANO / IKASLEA

2002-02-08

HILEKODATUA

56

ZABOR-EDUKIONTZI JARRI ZITUZTEN KALEETAN

Zaborra batzeko sistema berria jarri zuten Debagoiengan, eta Aretxabaletan 56 edukiontzi jarri zituzten. /2002-02-22



Giro ona izan zen nagusi Aratusteetan

Giro ona eta jaia izan ziren nagusi bai Aratuste domekan baita martitzenean ere. Aratuste domekan, koadrila batzuk goizean goizetik irten ziren mozorrotuta, baina gehienak eguerdi alderako irten ziren kalera; arratsaldean, Plataformak antolatutako manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena; 19:30ak aldera, Mozorro Lehiaketako sariak banatu zituzten. Aurten, nagusien mailan, *Mad Max* filma antzeztu zuen mutil koadrila batek eskuratu zuen lehengo saria; gaztetxoenen mailan, berriz, barazkiz mozorrotutako koadrila batek irabazi zuen sari nagusia. Aratuste martitzenean, berriz, eskoletako umeak irten ziren kalera mozorrotuta; eta gauean, ohiturari jarraituz, txinoa erre zuten herriko plazan. /02-03-15

SANTA AGEDA MUTIL GUZTIAK DANTZAN

↑ Nahiz eta Santa Ageda mutiletatik bat gurpil-aulkian egon, hark ere dantzaldia egin zuen. /2002-02-15

ZUHAITZAK APURTUTA

↓ Santa Kurtz osteko parkean zuhaitz bi apurtuta azaldu ziren: ezki eta ailanto bana. /2002-02-01


AIPAGARRI



ANDONI MIGUEL
Xake Taldea



AITOR IRURE
Langilea



RAMON ERAÑA
Langilea

Mailaz jaisteko zorian zegoen otsailaren 8an herriko xake taldea. Besteak beste, Andoni eta Fran Miguel, Aitor Alcaide eta Esteban Romero daude taldean. /2002-02-08

Urbaltz elkarteko Aitor Irure eta Alejandro Ulezia izan ziren Elkarte Arteko Mus Txapelketako irabazleak. Txapelketa Uratz Alden egin zuten. /2002-02-15

Aurten ere Ramon Eraña arduratu da Santa Ageda mutilei dantzak erakustez. Iturri gorri frontoian egiten zituzten entseguak Santa Ageda Egunerako. /2002-02-01

HIRIGINTZA

Termitek eragindako kalteak konpondu zituzten

Durana kaleko hainbat etxebizitzatan termitek azken hilabeteetan eragindako kalteak konpondu zituzten. Zenbaki bakoitidun etxebizitzetan termitak zeuden, eta haiek sor zezaketen kaltea zela-eta, Aretxabaletako Udalak termiten aurkako tratamendua ematea erabaki zuen. /2002-02-22

SUTEA

Sutea izan zen Kurtzebarri mendiaren magalean

Otsailaren 1ean, sua piztu zen, arratsaldeko ordu bata aldera, Kurtzebarri mendiaren magalean; izan ere, baserritarren batek sua piztu ei zuen, sasiak erretzeko; bat-batean haizea zakartu, eta sua bizitu egin zen. Hala ere, ez zen ezer larririk gertatu; arratsalderako itzali zuten. /2002-02-08

GIZARTEA

Otsailaren 5etik 9ra gotzainaren bisita izan genuen

Otsailaren 5etik 9ra bitartean, herriko kristau elkarteak ezagutu gura izan zuen. Pastoral Kontseiluko kideekin batu zen, eta haiek elkartearen egoera zein zen azaldu zioten. /2002-03-01

ALKOHOLAREN GAINEKO LEGE BERRIA /2002-02-22



MYRIAM BELTRAN DE HEREDIA
DROGAMENPEKOTASUN TEKNIKARIA

Zer iruditzen zaizu gobernuak onartu gura duen legea?

"Gazteen artean gutxiago edatea bada helburua, ez zait iruditzen bide egokiena denik. Debeku eta inposaketa bidez ez da ezer lortzen; agian, kontrakoa eginaraztea".

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Faxa: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa A-2-4
ARETXABALETA

Zorionak
eta urte
berri on!

MARTXOA



"Edinburgheko giroa eta jendea baino gehiago, gurago dut nire herrikoa"

MIKEL MENDIARTX / IKASLEA

2002-03-01



"Euskal Herriko kulturatik gertuago sentitzeko ikasi dut euskara"

LUZMA ROJAS / KOLONBIARRA

2002-03-15

HILEKOESALDIA

**"Feminista?"
Horrek berdintasunaren sinonimo izaten jarraitzen duen bitartean, bai, horixe!"**

LORE ABARIK / LANGILEA

2002-03-15

HILEKODATUA

2.800

**LIBURUXKA BANATU ZIREN,
HERRIAREN GAINEKOAK**

Herriko eta inguruetakoz auzo berri ematen zuten 2.800 liburuxka kaleratu zituen Aretxabaletako Udalak. /2002-03-22



Iturriondo parkeak 10 urte bete zituen

Duela hamar urte, herritarren naturarekiko ezjakintasunaz konturatuta, Euskal Herriko basoa ezagutaraztea pentsatu zuten Aretxabaletako hainbat lagunek. Sasoi hartan, sasi leku handia besterik ez zen Mendiolara bidean dagoen Iturriondo parkea. Lagun talde hark proiektutxo bat egin, eta zelaia garbitu zuen. Eta martxoan, 10 urte bete zituen Iturriondo parkeak. /2002-03-22

ABIADURA MURRIZTEKO BANDAK

↑ Araba ibilbidean automobilen abiadura murrizteko bandak jarri zituen Aretxabaletako Udalak. /2002-03-22

ITURRIGORRI FRONTOIARI ERASO

↓ Iturrigorri frontoian behin baino gehiagotan azaldu dira hormak margotuta, kristalak apurtuta.... /2002-03-01

AIPAGARRI



MARKOS UNTZETA
Musikaria

Agurrak beti dauka zapore garratza diskoa atera zuen Markos Untzeta musikari bergararrak. Kurtzebarri Eskolan dabil lanean, irakasle. /2002-03-27



ENEKO PÉREZ
Txirrindularia

Eneko Pérez txirrindulari gazteak martxoako lehenengo astean egin zuen debuta amateur mailan. Urnietatel taldearekin, hain justu ere. /2002-03-22



LARRAITZ ARANDO
Langilea

Martxoan hasi zen Larraitz Arando Loramendi Euskal Elkarte laneari. Aretxabaletako merkataria euskalduntzeaz arduratzen da Larraitz. /2002-03-08

MUSIKA

Musika Eskolako ikasleek kontzertuak eman zituzten

Martxoaren 20an, 21ean eta 22an, kontzertuak eman zituzten Leizarra Musika Eskolan. Trikitixa, biolina, tronpeta... Ordura arte ikasita zutena erakutsi gura izan zioten gurasoei eta herritarrei Musika Eskolako ikasleek. Kontzertu guztiak, gainera, debalde izan ziren. /2002-03-15

AKORDEOI ORKESTRA

Akordeoi Orkestra laugarren geratu zen Europako Txapelketan

Pragan jokaturako Europako II. Akordeoi Orkestren Txapelketan laugarren izan zen Aretxabaletako Akordeoi Orkestra. Europako hainbat herrialdeetatik joandako hogeita sei akordeoi orkestra izan ziren txapelketan. Eta hainbat kontzertu ere eman zituzten. /2002-03-22

HERRI KIROL TOPAKETAK

Eskola Arteko Herri Kirol Topaketak izan ziren herrian

Otsailaren 26an, ikaslez bete zen herriko plaza. Debagoieneko lau ikastetxetako gaztetxoak lehian ibili ziren Eskola Arteko Herri Kirol Topaketetan: Almengo, San Frantzisko Xabier Ikastolako, Txantxiku Ikastolako eta Kurtzebarri Eskolako gazteak ibili ziren norgegiagokan. /2002-03-01

ARETXABALETARRAK MUNDUAN /2002-03-27



LOREA ZABALA
IKASLEA

Zer irabazten da Edinburg bezalako hiri batean bizitzearekin?

Guztiei gomendatuko nieke denboraldi batez etxetik kanpo bizi izatea, ahal izanez gero, jakina. Oso esperientzia positiboa da. Batez ere, nor bere burua eta jendea ezagutzeko.

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33 / 79 42 56



FELIX PAGALDAY

Zorionak eta urte berri on!

APIRILA



"Aretxabaletara iritsi nintzenean, munduko mugan nengoela uste nuen"

TERENCE MARTIN / NEW YORK

2002-04-19



"Beste kirolelan moduen, karatien be serixotasune eta jarraikortasune biher die"

ODILIO VÁZQUEZ / KARATE IRAKASLEA

2002-04-19

HILEKOESALDIA

"Misiolarien lan isilak gogorazten digu injustiziaren aurrean ezin garela eserita gelditu"

ARANTXA JAKA / IRAKASLEA

2002-04-19

HILEKODATUA

3.212

LIBURU HARTU ZITUZTEN MAILEGUAN 2001. URTEAN

2001. urtean barrena, herritarrek 3.212 liburu hartu zituzten maileguan Aretxabaletako Udal Liburutegian. /2002-04-19



Aberri Egun bateratua egin zuten herrian

Martxoaren 31n egin zuten Aretxabaletan ere Aberri Eguna. Gurean, baina, bestetan ez bezala, Aberri Egun bateratua egin zuten, herriko abertzaleek batera ospatu zuten-eta Aberri Eguna. Besteak beste, Ikurrinari agurra egin zioten eta herriko alkateak Aberri Eguneko mezua irakurri zuen. Bestalde, hogeita hamarren bat herritarrek bazkaria egin zuten. /2002-04-12

ZUBEROAREKIN KEZKATUTA

↑ Xiberoa Garatzen ekimena sortu zuten herrian. Taldearen helburua Zuberoari laguntzea zen. /2000-04-19

GURPILAK ZULATZEN

↓ Antza, norbait aspertuta zebilen, eta aparkatuta zeuden automobil batzuen gurpilak zulatu zituen. /2002-04-26

AIPAGARRI



GURUTZE MUXIKA
Margolaria



ANA DÍAZ
Kultura



IBON ERRASTI
Pilotaria

Gurutze Muxika margolariak Bergarako V. Abdon Juaristi Pintura Lehaketa irabazi zuen. Eta margo erakusketa zabaldu zuen Trebiñon. /2002-04-26

Joan den apirilean hasi zen Ana Díaz oñatiarra Aretxabaletako Udaleko Kultura teknikari laguntzaile. Inma Miguel teknikariari laguntzen dio. /2002-04-19

Errasti anaiek ezin izan zuten ezer egin Debarroko Pilota Txapelketako finalean. Bergarako bikote baten kontra jokatu zuten, eta 13-22 galdu zuten. /2002-04-12

OSASUN PASTORALTZA

Osasun Pastoraltzak Osasun Astea egin zuen

Apirilaren 29tik maiatzaren 4ra bitartean, Osasun Astea egin zuten herrian. Urtero legez, parrokiako Osasun Pastoraltzak antolatu zuen. Lau egunean berbaldiak entzuteko aukera egon zen, eta maiatzaren 4an, gaixoen aldeko eukaristia egin zuten. Gaixoen bano gehiago, etxean gai-


xoak dituzten senitartekoengan eta gaixoen zaintzen dituztenengan pentsatuta egin zuten Osasun Astea. Gaixotasunak eramangarriago egiteko zer egin daitekeen esan zieten berbaldietara hurreratu zirenei. /2002-04-26

LITERATURA TOPAKETAK

Literatura Topaketak egin zituzten Kurtzebarri Eskolan

Liburuaren Nazioarteko Egunean, apirilaren 23an, Literatura Topaketak egin zituzten Kurtzebarri Eskolan. XI. Irakur Maratoia egin zuten, eta, horrekin batera, Bittoriano Gandiaga idazlea omendu zuten. Bestalde, ipuin kontaketa eta solasaldiak ere izan zituzten. /2002-04-26

BASOTXO ELKARTEKO BATZORDE ALDAKETA /2002-04-12



LUIS BELTRAN DE HEREDIA
BASOTXO ELKARTEKO IDAZKARI OHIA

Gizartean gehiago parte hartu behar duzuela esaten da...

Gehiago parte hartu? Erretiroan ez dago ezer egin beharrik, oporrak hartzea bezala da. Nahiko lan egin dugu orain arte; hemendik aurrera lasai-lasai bizitzea tokatzen da.

CREATIVO

ARQUERO

CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4 - EO -11 Aretxabaleta

943-790151 608-772867 679-455764

Urte Berriaren Sarreran

CONSTRULAN S.L. ARQUERO-KO

LANGILE GUZTIEK OPA DIZKIZUETE

JAI ZORIONTSUAK

ETA 2003 URTE BERRI ON!

MAIATZA



"Atzerrian momentu onak oso onak dira; txarrak, berriz, oso txarrak"

EKAITZ URIBE / IKASLEA

2002-05-31



"Garraio publikoa erabiltzea kulturaren ezaugarri da"

RESU ABASOLO / IRAKASLEA

2002-05-03

HILEKOESALDIA

**"Bederatzi hilabete-
tetik bi, behintzet,
enbutu estuen
sartute pasetan
ditugu azterketak
diela-eta"**

IRATI PAGOAGA / IKASLEA


2002-05-31

HILEKODATUA

12

**ARETXABALETARREK HARTU
ZUTEN PARTE KROSEAN**

Otala Zelaiko Krosean aretxa-
baletarren parte-hartzea bultza-
tu gura zuten, baina 12k bakarrik
hartu zuten parte./2002-05-11



KURTZEBARRI ESKOLAK, ABELINO BARRIOLA SARIA

Lehen Hezkuntzako 5. mailako Birigarruek taldea izan zen Abelino Barriola sarietan txapeldun. /2002-05-24


URTE BI AGERTU BARIK

Urte bi udaletxera joan barik egon ostean, Iñaki Pierrugues PSE-EEko zinegotzia osoko bilkuran izan zen. /2002-05-11

2002ko aurrekontuak onartu zituen Batasunak

Zazpi milioi eta seihun mila euro inguruko udal aurrekontua aurkeztu zuten maiatzaren 6ko osoko bilkuran. Batasuneko bost zinegotziek eta alkateak alde bozkatu zuten eta EAJ/EAkoek eta PSE-EEkoek, berriz, kontra. PPko zinegotzia, bestalde, ez zen agertu. Kuartela dagoen lekuan egin gura duten aretoak sortu zituen desadostasun handienak osoko bilkura hartan. /2002-05-17

AIPAGARRI



JOKIN ANTIXIA
Atzegiko arduraduna



RICHARD FERNANDEZ
Korrikalaria



ALBERTO IÑURRATEGI
Mendizalea

Debagoieneko Atzegiko arduradun izendatu zuten Jokin Antxia. Urte askoan Aretxabalatako ARATZ atzeratuen taldeko partaide izan da Jokin. /2002-05-31

Maiatzean, Urkuluko urtegiaren egin zuten Otala Zelaiko Krosean irabazi zuen Richard Fernandez oñatiarrak. Proban atxalbaltar gutxik hartu zuten parte./2002-05-11

Alberto Inurrategik maiatzaren 16an jo zuen Annapurna gaina. Hori ospatzeko, hamalau etxafuego bota zituen Murruxiko Mendi Elkarteak. /2002-05-24

MIAKETA

Polizia Nazionalak miaketa egin zuen herriko enpresa baten

Garzón epaileak Batasunaren aurka zabalduko operazioaren barruan, Polizia Nazionalak enpresa bat miatu zuen Aretxabalatako industrialdean. Hogeitabat polizia ibili ziren enpresa miatzen. Besteak beste, ordenagailua eta hainbat dokumentu eraman zituzten. /2002-05-03

EUSKADI IRRATIAREN BISITA

Euskadi Irratiaren bisita izan zuten Udal Euskaltegian


Maiatzaren 15ean, Euskadi Irratia izan zen Leintz Udal Euskaltegian. Euskadi Irratiko Babel saioan euskaltegien artean egin zen lehiaketan hartu zuten parte euskaltegiko ikasleek. Hainbat ariketa egin zituzten, eta laugarren geratu ziren Leintz Udal Euskaltegikoak. /2002-05-24

FUTBOLA

UDAK hamabigarren postuan bukatu zuen denboraldia

Maiatzaren 26an bukatu zuen UDako preferenteko taldearen denboraldia. Mundarro taldearekin jokatuak partiduan 5-1 irabazi zuen Aretxabalatako taldeak. Denboraldi hasieran oso ondo ibili zen UDA, baina azkenean, hamabigarren postuan bukatu zuen Liga Txapelketa. /2002-05-31

KEPA AKIXOREN ERAKUSKETA/2002-05-03



KEPA AKIXO "ZIGOR"
ESKULTOREA

Noiz hasi zinen eskultore bezala lan egiten?

Orain dela 25 urte. Prentsa argazkilaria nintzen, eta hainbat gerratan ibilia naiz. Aljerian nintzela eskultura egiteko gogoia izan nuen, eta, hain zuzen, horrelaxe hasi nintzen.

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU S.L.

Mitarte 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Zorionak eta urte berri on guztioi!

ARETXABALETAKO

UDALA

Aretxabaletako Udalak herritarroi Gabon zoriontsuak opa dotsue, eta urte berri zoriontsuena



Aretxabaletako Udalak herritarroi gabon zoriontsuak opa dotsue eta urte berri zoriontsuena

EKAINA



"Zatiketa handiegia nabari da familia, gizarte eta eskolaren artean"

ARANTXA JAKA / IRAKASLEA

2002-06-14



"Galdera da; bizitzeko kontsumitzen dugu ala kontsumitzeko bizi gara?"

XABIER SARASUA / IRAKASLEA

2002-06-21



Cyber Industrialdea aurkeztu zuten

Joan den ekainaren 18an, udal-letxeko ganbaran, SPRI erakundeak Cyber Industrialdea edo Enpresa Digitala izeneko proiektua aurkeztu zien 20 bat enpresabururi. Interes handia piztu zuen proiektuak hasiera-hasieratik.

Helburua zen enpresaburuei informazio eta komunikazio teknologiek ematen dituzten aukerak aprobetxatzen erakustea. Batez ere, enpresa txikiei zuzendu zieten proiektua.

Lantegiek teknologia berriak zenbateraino erabiltzen dituzten aztertu zuten, eta hobetzeko aukeren gainean ere berba egin zuten.

Horrez guztiaz gainera, lantegiek teknologiaren arlo horretan laguntzarik behar duten ere zehaztu zuten; azpiegitura eta aholkularitza ziurtatuko lituzketen laguntzak, esaterako. /02-06-28

HILEKOESALDIA

"Bidezkoa ez dena salatu beharra dago, negua edo uda izan, eta preso-en egoera ez da bidezkoa"

MARI ASUN BENGOA / LANGILEA

2002-06-07

HILEKODATUA

31

MUTILEN ARTEAN ALTXTATU ZUTEN TANTAIA

Aurten, 31 mutilen artean igo zuten San Juanetan ohikoa den tantaia. Herritar batzuen laguntza ere izan zuten. /2002-06-21

ANTOLAKETA BIKAINA

↑ Ekainean egin zuten II. Mendi Martxa. Murruxiko MEK egindako antolaketa txalagarria izan zen. /2002-06-14

PINTADAK HERRIAN

↓ Dagoeneko eginak zeuden aldarrikapen batzuen gainean beste pintada batzuk egin zituzten. /2002-06-07

AIPAGARRI



ASIER ATXA
Txirrindularia

Maiatzean 23 urte azpikoen Gipuzkoako txapeldun izan ondoren, Hernaniko San Juanetako Sari Nagusia irabazi zuen Asier Atxak ekainean. /2002-06-21



PATXI ZABALETA
Aralar

Patxi Zabaleta Aralar taldea aurkeztera etorri zen Aretxabaletara. Aurkezpen ekitaldira interesa zuten guztiei egin zieten gonbita antolatuzaileek. /2002-06-07



AITOR ETA JOSEBA
Pilotariak

Debagoieneko txikien Pilota Txapelketako txapeldunak izan ziren Aitor Uriarte eta Joseba Akizu 11 urteko pilotari aretxabaletar gazteak. /2002-06-14

ATXILOKETA

Zuhaitz Errasti atxilotu zuen Ertzaintzak

Zuhaitz Errasti 21 urteko aretxabaletarra atxilotu zuen Ertzaintzak. Terrorismoari apologia egitea eta agintariak iraintzea leporatu zioten. Atxilotua askatzeko eskatzeko kale agerraldiak egin zituzten, bai Aretxabaletan baita Arrasaten ere. Egun berean utzi zuten aske Zuhaitz. /2002-06-07

URTEURRENA

X. urteurrena ospatu zuen Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak X. urteurrena ospatu zuen ekainean. Urteurren ospakizuna hainbat ekitaldiz beteta egon zen. Eta lehenengo ekitaldia ekainaren 8an egin zuten: Arrasate Musikaleko Big Band taldeak kontzertua eskaini zuen Mitarte kalean. /2002-06-07

BIRZIKLAPENA

Sukaldeko olio batzeko zerbitzua jarri zuten abian

Joan den ekainean, erabilitako olio batzeko zerbitzua jarri zuten herrian. Hileko azken astelehenetan hasi ziren olio batzen Belorrietako azokan. Olio horrekin biodiesela egiten da. Ecogras enpresako autoan eman daiteke olio, hain zuzen, 10:00etatik 13:00etara bitartean. /2002-06-21

XIBEROA GARATZEN EGITASMOA AURKEZTU ZUTEN /2002-06-14



IKER AKIZU
XIBEROA GARATZEN EGITASMOKO KIDEA

Aretxabaletarrendako Zuberoa nahiko ezezaguna da, ezta?

Bai, egia da. Hala ere, kanpaina aurkeztu genuen egunean, izugarrizko jendetza hurreratu zen Murruxiko Mendi Elkarte-ko egoitzara, eta hori eskertzekoa da.



Barruko eta kanpoko lorategiak zaindu eta sortzen ditugu

Ureztatze-sistema automatikoak instalatzen ditugu

Zorionak eta urte berri on guztioi!


Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa: 943 79 78 45 eta 616 96 57 98

Aitzorrotz elektronika
Alboka gazte moda
Ana's jantzi denda
Angelines autozerbitzua
Aretxabaleta iturgintza
Asensio jantzi denda
Begiondo optika
Calderon Soledad autozerbitz.
Errasti kioskoa
Errekabarren fruta denda
Etxabe harategia
Farma bizi parafarmazia
Gantxegi harategia
Gemes edertze aretoa
Gertu janari prestatuak
Haurrak umeen moda
Ibarra estankoa
Iber loteria
Imanol janari denda
Iriarte umeen denda
Irudi ileapaindegia
Jauregi okindegia
Jon harategia
Josu harategia
Kixkur ileapaindegia
L-10 ileapaindegia
La Brasileña akeita etxea
Lasai masajeak
Leibar arraindegia
Leintz mertzeria
Leniz liburudenda
Mari Karmen oinetakoak
Maritxu mertzeria
Martin erlojudenda
Miren Zuriñe bitxitegia
Nerian loradenda
Txilarra dietetika
Xume oihal denda
Zainduz osasuna/fitnessa
Zare artegintza
Zubia oinetakoak

Gabon ZORIONTSUAK
igaro ditzazue!



FORUM URBANARITZA GOBIERNO VASCO
INSTITUTO MERCHANTIA DE TIEMPO LIBRE DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO



Errege Eguneko loteria opari egiten dugu.
Zer egingo duzu tokatuz gero?



KURTZEBARRI
ESKOLA



KURTZEBARRI ESKOLA

Santa kurtz 19
ARETXABALET
Tel./faxes: 943 79 00 49
Posta-e: kurtzeba@teleline.es
Web: www.goieskola.net



KURTZEBARRI
BHI



KURTZEBARRI BHI

Santa kurtz 19
ARETXABALET
Tel./faxes: 943 79 57 40
Posta-e: 012945aa@hezkuntza.net
Web: www.goieskola.net



ARRASATE/ARETXABALET
INSTITUTUA

Etxebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00
Faxes: 943 79 09 55
Posta-e: ia@iaretxabaleta.com
Web: www.iaretxabaleta.com

ZORIONAK

ILE APAINDEGIA

ESTETIKA

SOLARIUMA

Urte berri on!

LORAMENDI 10
943 770 126
20 550 ARETXABALETA

L-10

Aretz

taberna



- .Gosariak
- .Pintxoak
- .Plater konbinatuak
- .Otartekoak
- .Pizzak
- .Hanburgesak
- .Sandwichak
- .Oilasko erreak
- .Kazuelatxoak

ONDO HAS DEZAZUELA URTE BERRIA!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole 5, behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABALETA

UZTAILA



"Oso herrialde antolatua daukazu; Kolonbian oso neurrigabeak gara"

EDWIN VITOVIZ/ IKASLEA
2002-07-19



"Elkarteak herriko dinamikaren ezinbesteko aktoreak dira"

EDORTA MENDIETA / LANGILEA
2002-07-12

HILEKOESALDIA

"Orokorrean jende guztia egoten da oporrak hartzeko irrikan... Denok, jubilatua izan ezik"

LORE ABARIK/ LANGILEA
2002-07-19

HILEKODATUA

192

UMEK EMAN ZUTEN IZENA UDALEKU IREKIETAN

Aurtengo Udaleku Irekietan 192 ume eta gaztetxok eman zuten izena; eta Udako Kirol Kanpainan, berriz, 77 lagunek. /2002-07-05



Batzokiaren aurkako eraso

Joan den uztailaren 14tik 15era bitarteko gauean, Durana kalean dagoen batzokiko fatxada pintadaz beteta agertu zen. Espainiako bandera margotu zuten, aldenik alde, eta EAJren aurkako esaldiak idatzi zituzten gainean. Horrez gain, margo gorri eta larua jaurti zuten eraikinaren fatxadaren kontra.

Aretxabaletan ez ezik, Euskal Herriko beste leku batzuetan ere erasoak izan ziren gau berean.

Batzokian lehenago ere hainbat eraso izan dira. Larriena, ordea, 1997an, urrian, gertatu zen, ezezagun batzuek molotov koktelak botata erre egin zuten-eta.

EAJ alderdiak astelehen hartan egindako Gobernu batzordean erasoaren berri eman zuten. Martitzen eguerdian bertan hasi ziren garbiketa lanak. /2002-07-19

AKORDEOI ORKESTRAREN X. URTEURRENA

Uztailaren 13an, kontzertu bikaina eskaini zuen Akordeoi Orkestrak urteurrena ospatzeko. /2002-07-12

EUSKARAZ BAI, BAINA ZUZEN

Herriko enpresa batzuetako kartelak euskaraz egon arren, ez daude zuzen idatzita. /2002-07-12

AIPAGARRI



IGOR GUENETXEA
Mendizalea

Joan den uztailean, Igor Guenetxea gazte arkarazozarrak Huascaran mendia (Peru) igotzeko asmoa azaldu zuen. Uztailaren 24an irten ziren. /2002-07-19



INAZIO GALDOS
Misiolaria

Inazio Galdos jesuitak 51 urte daramatza Indian. Hiru urtean behin etortzen da Aretxabaletara. Uztailean izan genuen herrian Inazio Galdos. /2002-07-24



JUANJO OROBENGOA
Orkestrako zuzendaria

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak, Juanjo Orobengoa zuzendariaren aginduetara, kontzertua eskaini zuen herriko parroikia nagusian. /2002-07-112

BATASUNAREN AURKAKO OPERAZIOA

Urbaltz taberna eta elkarteko kontuak blokeatu zituzten

Batasuna legez kanporatzeko Baltasar Garzón epaileak hartutako erabakien ondorioz, Urbaltz tabernako eta elkarteko kontuak blokeatu egin zituzten. Aretxabaletan bezala, eskualdeko herriko taberna eta elkarte gehienetan ere kontuak blokeatu zituzten. /2002-07-19

URKULURAINOKO BIDEGORRIA

Urkulurainoko bidegorria egitea erabaki zuen Udalak

Joan den uztailaren 1ean, ezohiko osoko bilkura egin zuten. Baina uetxetik Urkulurainoko bidegorria egitea adostu zuten. Bidegorri horren lehen zatia ordurako egin zuten, eta astelehen hartako osoko bilkuran bidegorriaren bigarren zatia egitea onartu zuten. /2002-07-05

PLATAFORMAKO MENDI MARTXA

EPEH Plataformaren eskutik Kurtzebarrira mendi martxa izan zen

Joan den uztailaren 7an, Kurtzebarrira mendi martxa egin zuten, Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak antolatuta. Eguraldi bikaina izan zuten Kurtzebarrira joatera animatu ziren 60 bat herritarrek. Tontorrean EPEH izara jarri, eta otordua egin zuten Elizabarrin. /2002-07-12

HERRIKO PARROKOAREN AGURRA /2002-07-12



ANTONIO ASTIGARRAGA
PARROKO OHIA

Zelako abadea beharko genuke Aretxabaletan?

Nork bere ikuspuntuaren arabera gura du abadea, eta sarritan ez dizute uzten zu zaren bezalakoa izaten. Herri guztietan ebanjelioaren zerbitzaria izango den abade askea behar da.

Aretxabaletako



Gabon zoriontsuak eta urte berri on guztioi




ABUZZTUA



"Argi itxi gure dot Jai batzordie irekixe dala edozeinek parte hartu deitzen"

INMA MIGUEL/KULTURA TEKNIKARIXE
2002-09-06



"Herritarrak baino kanpoko jende gehiago ibili da aurten jaietan"

SALBA RODRÍGUEZ / TABERNARIXE
2000-09-06



Jai giro polita izan zen Andramaixetan

Urtero moduan, abuztuaren 14an, 15ean, 16an eta 17an Andramaixa jaiak ospatu zituzten Aretxabaletan. Aurten jende gutxi ibili zela entzun zen, baina jai giroa apartekoa izan zen. Adin guztietarako ekintzak izan ziren lau egunean barrena, eta jende oso pozik ibili zen. Pilota partiduek eta Los Perez de Nochistlan mariachi taldearen ikuskizunak arrakasta handia izan zuten.

Antolatzaileen esanetan, ez da samurra jende guztiaren gusturako egitaraua antolatzea. Hala ere, herritarrak Andramaixekin pozik azaldu ziren. Umeek gura beste joko eta antzerki izan zuten, eta nagusiendako kontzertu eta ikuskizunak ere ez zen falta izan.

Andramaixetako hirugarren egunak izan zuten arrakasta handien. /2002-09-06

HILEKOESALDIA

"Jaietarako herritar gutxi etorri dala uste dot. Egualdixagatik ekintza batzuk ez zien ondo urten"

LARRAITZ IÑURRATEGI/ JAI BATZORDEA
2002-09-06

HILEKODATUA

500

LAGUN INGURU HERRI BAZKARIAN

Inoiz baino jende gehiago batu zen Andramaixa hirugarrenean plazan egin zen paella erraldoia jateko: 500 bat lagun. /2002-09-06

GIRO BIKAINA ANDRAMAIXA HIRUGARRENEAN

↑ Koadrilen Egunean giro bikaina izan zen. Bazkalondoko jokoez, gainera, erabat girotu zuten eguna. /2002-09-06

GAZTETXOAK SOKAMUTURREAN

↓ Debekua egitarauan jartzen dute, baina aurten, 16 urtetik beherako hainbat jende zebilen sokamuturrean. /2002-09-06

AIPAGARRI




YERA SÁNCHEZ
Ikaslea

Yera Sánchezek irabazi zuen aurtengo Andramaixetako Kartel Lehiaketa. Arratsalde bakar baten egin zuen Yera Sánchezek marrazkia. /2002-07-19



MARKEL URIARTE
Motozalea

Lizarrako Ros anaiekin batera Trialsin erakustaldi bikaina egin zigun Markel Uriarte larrinoarrak jaietan. Jende ugari joan zen ikuskizuna ikustera. /2002-08-06



GARIKOITZ ITURBE
Txosnak

Garikoitz Iturbe izan zen Andramaixetan txosnak antolatzeaz arduratu zenetako bat. Garikoitzen iritzi, inoiz baino jende gutxiago ibili da aurten. /2002-09-06

MANIFESTAZIOA

EPEH Plataformak antolatuta manifestazioa izan zen

Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak antolatuta manifestazioa egin zuten Andramaixen bigarren egunean. Gazte eta nagusiak batu ziren herriko kaleetan, euskal presoek euskal herriratzea aldarrikatzeko. Manifestazioaren buruan hiru pankarta eramane zituzten. /2002-08-06

UMEENDAKO JOKO ETA ANTZERKIAK

Umeendako hainbat joko eta antzerki izan ziren Andramaixetan


Andramaixetan umeek protagonismo handia izan zuten. Gure beste joko izan zituzten lau egunean barrena: gaztelu puzgarriak, zezen mekanikoa, motak... Antzerkiak ere izan ziren, eta pozik hartu zuten parte umeek Hortzmuga eta Hankagorri taldeen ikuskizunetan. /2002-08-06

KOADRILEN EGUNA

Koadrilen Egunak arrakasta handia izan zuten aurten

Andramaixetako hirugarren egunean Koadrilen Eguna ospatzen da. Aurten, giro ezin hobea izan zen Koadrilen Egunean. Hainbat koadrilak kaleak kolorez jantzi zituzten euren kamisetekin. Bazkaldu ondoren antolatutako jokoetan ere jende askok parte hartu zuen. /2002-08-06

ANDRAMAIXETAKO BALORAZIOA/2002-09-06



MARTIN GARAI
UDALTZAINBURUA

Zelan juen die aurtengo Andramaixak? Ze baloraziño egingo zeuke?

Oso jai lasiaxe izen die eta ez dogu inungo arazorik euki. Jaiegunetan udaltzain bakarra ibilli zan lanien, eta ez euen aparteko lanik euki. Gabetan be jentie oso txintxo ibilli zan.

Urte berri on guztioi!


LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

IRAILA



"Egonezinak eta gauza berriak ezagutzeko gogoak atera ninduten herritik"

BENITO GASTAÑAGA / LANGILEA

2002-09-20



"Bizimodu errazera oso bizkor eiten da bat, eta gero izaten die kontuek."

IRATI PAGOAGA / IKASLEA

2002-09-20

HILEKOESALDIA

"Gurean ez dirudi kolorea denik arazo, ez; pentsa- era eta eskubide kontua dago mahai gainean"

AITOR AGIRIANO / IKASLEA

2002-09-13

HILEKODATUA

165

TXERTO JARRI ZITUZTEN GRIPEARI AURRE EGITEKO

Urtero moduan, aurten ere hainbat herritar hurreratu ziren anbulatoriora gripearen aurka-ko txertoa jartzera. /2002-09-20



San Migelak 2002

Kultura teknikariaren esanetan, aurten, iaz baino jende gutxiago ibili zen San Migeletan. Dena dela, antolaketa aldetik ezerk ez zuela hutsik egin eta, orokorrean, festa politikak izan zirela azpimarratu zigun. Zapatuan, goizean goizetik, euskal giroa izan zen nagusi, eta domekan, jende mor- doa hurreratu zen herriko plazara Kepa Junkeraren ikuskizuna ikustera. /2002-09-27

INFORMAZIOGUNE APROPOSA

↑ Oro auzorako bide ertzean jarri zuten informaziongunea oso aproposa da kanpoko jendearendako. /2002-09-13

HEZETASUNA LEIZARRA MUSIKA ESKOLAN

↓ Urte batetik bestera Leizarra Musika Eskolako hormetako hezetasuna handituz joan da. /2002-09-20


AIPAGARRI



JULEN GOBOS
Abeslaria



KARMELE AGIRREGABIRIA
Euskara irakaslea



ODILIO VÁZQUEZ
Karate irakaslea

Abeslari aretxabale- tarra aspaldi joan zen Bartzelonara. Eta handik ekarri zigun Bat Gehio KOOP tal- dearekin grabatu zuen diskoa: *Bihar agian*. /2002-09-20

Karmele Agirrega- biria Udal Euskalte- giko irakaslea da. ARETXAGAZETAk elkarrizketa egin zion joan den irai- lean Karmele Agirre- gabiriari. /2002-09-20

Odilio Vázquez kara- te irakasleak joan den irailan hasi zituen eskolak. Hala, abenduko txapelke- tetarako prestatuko ditu Odiliok ikasle- ak. /2002-09-20

KURTZEBARRI EGUNA

Giro paregabea izan zuten Kurtzebarri Egunean

Urtero moduan, aurten ere Kurtzebarri Eguna ospatu zuten joan den irailaren 8an hainbat herritarrek. Aurreko gauean bota zuen euri zaparradak ez zuen erago- tzi Kurtzebarri gainean 100 lagu- netik gora batzea. Eguna Ramon Mari Elkorok esandako mezare- kin hasi zen. /2002-09-13

INDUSTRIALDE BERRIA

Industrialde berrian lau enpresa hasi ziren lanean

Ofizialki oraindik inauguratu barik zegoen, baina joan den irai- lean hasi ziren lanean Bainue- txeko Industrialdea osatzen duten lau enpresak. Industrial- deak 15.000 metro koadroko aza- lera du. Horietatik, erdia baino gehiago LASAk eraikitako lan- tokiak betetzen du. /2002-09-20

GAS-ISURKETA

Otalora kaleko lanek gas isurketa eragin zuten

Irailaren 17an, susto ederra har- tu zuten Otalorako bizilagunek: 8. atarteko etxebizitza zaharbe- rritzen ari diren langileek gas hodi bat zulatu zuten. Horren ondorioz, gas isurketa izan zen, eta larrialdietako zerbitzuak eto- rri ziren. Kalea itxita egon zen ordu batzuk. /2000-09-20


SAN MIGELETAKO OMENALDIA /2002-09-27



ANTONIO ZUAZUA
SAN MIGUELETAKO OMENDUA

Zelan hartu zenuen omenaldiaren albistea?

Egia esan, niri gauza horiek ez zaizkit askorik gusta- tzen; bazterretik ibiltzea gurago dut. Dena dela, poz handia eman dit. Norbait nitaz gogoratu da, eta hori eskertu beharra daukat.




Olentzero, Gabon zahar gaua, Bizar Zuri, urte berria, erregeak...

guk ere egun seinlatu hauek zuekin ospatu nahi ditugu.



Aretxabaleako Eusko Alkartasuna

URRIA



"Diseinatzaileok jendearen arreta piztuko duen diseinua egin behar dugu"

IVAN VAZ / MODA DISEINATZAILEA
2002-10-31



"Ikurrina balkoian jartzeak lotsa edo pereza eman die nonbait herritar gehienei"

XABIER SARASUA / IRAKASLEA
2002-10-04



Pauskoa Haur Eskolako eraikin berriaren inaugurazioa

Joan den urriaren 19an inauguratu zuten Pausoka Haur Eskolako eraikin berria. Eraikina hiru solairuz osatuta dago, eta bi zatitan banatu zuten: alde batetik, umeendako gelak; eta, bestetik, bertako langileendako gunea. Antolatzaileek adierazi zigutenez, bai hezitzaileak baita umeak ere askoz gusturago dabilta eraikin berrian. /2002-10-18

HILEKOESALDIA

"Gure ingururik aprobetxagarrienetako batean (Urkulun) loreak eta kondoiak dira nagusi"

EDORTA MENDIETA / LANGILEA
2002-10-18

HILEKODATUA

189,9

EURO ORDAINDU ZITUZTEN ERRETZEN UZTEKO

Prebentzio Sailak erretzen uzteko ikastaroa antolatu zuen. Parte-hartzaile bakoitzak 189,9 euro ordaindu zituen. /2002-10-11

LOREZ BETETAKO BALKOIAK

↑ Lorez betetako balkoiek asko alaitzen dituzte herriko kaleak. Txalo bat, hortaz, balkoi horien jabe direnei. /2002-10-11

HELIKOPTEROA TORRALDEN

↓ Ertzainak Urkuluko Torrealdeko uhartera sartu ziren, helikopteroz, eta hainbat hegazti izutu zituzten. /2002-10-04

AIPAGARRI




IRMA ARBAOLAZA
Bidaiazalea

Aretxabaletar honek joan den urriaren 14an hasi zuen *Around the world* bidaia. Hegazkinez egiten den *interrail* antzeko bidaia mota bat da. /2002-10-18



ENERITZ PAGALDAI
Ikaslea

Joan den urrian abiatu zen Eneritz Mozambique aldera. Mundukidek bideratutako proiektu bat garatzeko asmoarekin abiatu zen hara. /2002-10-25



ANDONI URZELAI
Errealizadorea

Haginkadaka liburuarekin Irun Hiria literatura saria irabazi zuen Andoni Urzelai urrian; euskaraz idatzitako eleberrien saria, hain zuzen ere. /2002-10-25

IKERLANA

Etxabeak etxebizitza bihurtzeko azterketa egin zuen Udalak

Aretxabaletako Udalak herriko etxabeetan etxebizitzak egiteko ikerlana jarri zuen ikusgai udalletxean. Txosten horretan, besteak beste, etxebizitza bihurtzeko aukera duten etxabeen zerrenda ageri zen. LKS Aholkularitza Zerbitzuak eraman zuen aurrea ikerketa. /2002-10-04

LANAK

Plazako eraikina nork eraberrituko duen erabaki zuten

Kurtzebarri Eskolak plazan duen eraikina nork eraberrituko duen erabaki zuten joan den urrian. Hala, Altzibar enpresa eraikitzaileak egingo du, azkenean, herriko plazan eskola berria. Horretarako, lehenengo eta behin, oraingo eraikina bota beharko dute. /2002-10-25

OSPAKIZUNAK

VI. Gastronomia eta Folklore Eguna ospatu zuten herrian

Joan den urriaren 20an, VI. Gastronomia eta Folklore Eguna ospatu zuten. Errioxatik, Laudiotik, Donostiatik eta Arrasatetik etorritako elkarteak izan ziren herrian. Jose Lonbide aretxabaletarra izan zen egun horretan egiten den Patxaran Lehaketako txapeldun. /2002-10-25

EHIZA DENBORALDIA, ABIAN /2002-10-25



TXOMIN MANTEKA
EHIZTARIA

Zein lekutan egiten duzu ehizan normalean?

Ehiza-postuetan egiten dut ehizan, normalean. Aurretan, Leintz Gatzagan dauden guneeetan ere egin dut ehizan. Beste batzuetan, ehiza esparruetara joaten naiz.

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala



ANDRA MARI

Aholkularitza

Jai zorientsuak eta urte berri on!

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

EXTRA FITS FITNESS OPINIONS GIMNASIO



SPORTLAND
FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE,
Garibai Etorbidea. 2-6 Gipuzkoa

AZAROA



*"Ehizatzea bera ez dut
arbuiazen; baina batzuen
jokaerak erretzen nau"*

AITOR AGIRIANO/ IKASLEA

2002-11-15



*"Gaur egun lau ladrilok
duten prezioa biharko plan
asko mugatzen ari da"*

LORE ABARIK/ LANGILEA

2002-11-08

HILEKOESALDIA

**"Zer banatuko
neuke betiko fan
biherra tokau
ezkero, zorrak
besterik ez dau-
kot-eta?"**

XABIER SARASUA/ IRAKASLEA

2002-11-29

HILEKODATUA

183

**HERRITARREK EMAN DUTE
IZENA ETXEBIDEN**

183 aretxabaletarrek gura dute babes ofizialeko etxebizitza bat. Horietatik, 30 gertu daude errentan bizi izateko. /2002-11-15



XIV. Loramendi Literatura Lehiaketa

Loramendi Euskara Elkarteak, Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzarekin, Aretxabaletako Eskola Arteko XIV. Literatura Lehiaketa jarri zuen abian. Orain arte egin diren ipuin, poesia eta kontu zaharren grabaketaz gain, komiki, piropo, amodiozko gutunen eta posta elektronikoko bidezko ziten norgehiagokak ere antolatu zituzten. Sariak urtarrilaren 23an banatuko dituzte. /2002-11-22

ERAIKIN DOTOREA

↑ Otalora kalean eraberritu duten etxearen kanpoko aldea oso dotore utzi dute. /2002-11-08

FAROLAK, ZERTARAKO?

↓ AZBE osteko aldapa aspaldi urbanizatu zuten, baina oraindik ez dituzte farolak piztu. /2002-11-15

AIPAGARRI



MIRIAM SANTATERESA
Karateka

Azaroaren 10ean lehen aldiz hartu zuen parte Miriam Santateresak karate txapelketa baten. Hark adierazi zigunez, oso urduri ibili zen astean. /2002-11-08



JON TENA
Gimnasioko monitorea

Kirol etxean gimnasia egiteko saio personalizatuak jarri zituzten. Jon Tenak prestatzen ditu saio horiek. Ikasketa praktikak egiten ari da Jon. /2002-11-15



JAVIER MADRAZO
EB

Azaroaren 6an, Jaur-laritzako Etxebizitza eta Ongizate Sozialeko sailburu Javier Madrazok etxebizitza politikaren gaineko berbaldea egin zuen. /2002-11-08

TXABOLAK

Aisialdirako txabolak egin zituzten Urkuluko bidegorrian

Debagoiena Industrialdea Sako arduradunek beti izan dituzte kontuan garai baten Bainuetxean zeuden txaboletako jabeak. Horregatik, inguru hartan industrialdea egin behar zutela jakinarazi zieten, akordioa egin zuten. Hala, Bainuetxean txabolak zituzten jabeek beste txabola

bat eraikiko zietela adostu zuten. Eta, horrela, industrialdeko eraikinak bukatu zituztenean, txabola berriak eraikitzen hasi ziren Bainuetxeko goiko aldean, bidegorri berriaren bazterrean, hain justu ere. /2002-11-29



Urkuluko bidegorrian daude txabolak.

ODOLA EMATEKO KANPAINA /2002-11-29



ANGELES DOMÍNGUEZ
ODOL EMAILEA

Emandako odola pagatu egin beharko litzateke?


Ezta pentsatu ere. Odola eman egiten den gauza bat da, eta ez saldu edo erosi egiten dena. Nork bere borondatez eta konbentzimenduz egiten duen ekintza izan beharko luke.

Bereziki: Harategia Urdaitegia Fruitategia

IMANOL JANARI DENDA

Gorbea kalea 8. ARETXABALETA. 943 79 05 83

ABENDUA



"Donostiako eta Bilboko taldeak izango dira ligako aurkaririk gogorrenak"

AITOR ALCAIDE / XAKE JOKALARIA

2002-12-05



"Urte luzeetan zehar lan ugari egin da euskaldunen hizkuntza eskubideen alde"

IRATI PAGOAGA / EHE

2000-12-13



Atxabaltarrok, itxialdian

Abendu hasieran, Atxabaltarrok izeneko herri ekimena sortu zuten herrian. Abenduaren 2an egindako prentsaurrekoan eman zuten eza-gutzera taldea. Orduan, hogei-ta hamar lagun inguru batu ziren udaletxe zaharrean.

Atxabaltarrok taldea Euskal Herriaren eta euskaldunen eskubideak defendatzeko sortu zuten. Lehenengo ekitaldia hilaren 13an eta 14an egin zuten itxialdia izan zen. Orduan, 30 herritar inguru batu ziren. Itxialdia *Euskal Herriaren eskubideen aldeko itxialdia* izenburupean egin zuten.

Atxabaltarrok taldea sortu aurretik, taldearen berri emateko kanpaina egin zuten, herrian kartelak jarrita. Eta kartel haietan *Franko bizirik dago, Gartzontzilo zikinik ez eta horrelako esaldiak idatzi zituzten.* /A.L

HILEKOESALDIA

"Abendua iritsi da eta berarekin dakar saria: erosketak, jantzeria, opariak, presak, Olentzero..."

ARANTXA JAKA / IRAKASLEA

2002-12-05

HILEKODATUA

33.450

EURO KOSTATU DIRA ELIZAKO LANAK GALARTZAN

Horietatik, ia 22.000 euro Gotzaingoak eta Udalak ordainduko ditu. Gainerakoa ordaintzeko maila-gua eskatu dute. /2002-12-13

AUTOENDAKO APARKALEKU GEHIAGO HERRIAN

Udalak zinema zaharraren atzeko aldeko ingurua autoak aparkatzeko txukundu zuen. /2002-12-05

UDAKO INFANTILEN TALDEAN INDARKERIA

Aureliano Calzón UDAko delegatuak jarrera itsusia erakutsi zuen Deban jokatuako partiduan. /2002-12-13

AIPAGARRI



XABIER SARASUA
irakaslea

Xabier Sarasuak xakeko material guztia euskaraz landu, eta fitxa-liburu baten batu du. Eta liburu hori Durangoko azokan jarri zuten salgai. /2002-12-05



MIREN UGARTE
ikaslea

Miren Ugartek egindako marrazkiak irabazi zuen aurten Goiena Komunikabideek eta Loramen-di elkarteak antolatutako Marrazki Lehiaketa. /2002-12-20



IGOR ARENAZA
futbolaria

Motrileko jokalariek, tartean, Igor Arenazak, soldatak kobratzeko arazoak izan zituzten, eta, protesta moduan, itxialdia egin zuten jokalariek. /2002-12-05

ASTEAN BEHIN

Gabonetarako egitaraua kaleratu zuten Kultura Sailak

Udaleko Kultura Saila, urtero legez, Negu Kulturalako egitaraua kaleratu zuen. Aurten, musikari ohikoa baino tarte handiago eskaini zioten. Hala, abesbatzak, akordeoi emanaldiak eta bestelako musika kontzertuak izan dira abenduan. Horrez gai-

nera, umeendako Poxpolin Park eta antzerkiak iragarri zituzten egitarauan. Gabon egunetan, bestalde, Olentzeroren, Bizar Zuri-oren eta Errege Magoen etorrera antolatu zuten. Negu Kulturalak hainbat erakusketa ere ekarri zituen herrira. / 2002-12-05



NIRE BIDAIA HURA /2002-12-13



MARTXI PÉREZ
IRAKASLEA

Amsterdamen itsasontzian ibili zinen. Esperientzia polita?

Sei-zazpi ordu egiten genituen itsasoan, eta ez da nolana hiko lana. Zeregin asko dago: oihala jaso, sokak batu... Erosketak ere egiten genituen, baita jatorduak prestatu ere.

Zorionak eta urte berri on atxabaltar guztioi eta gure artean egon behar luketen guztiei!

Kepa Urra, etxera!!

Aretxabaletako
Ezker Abertzalea



ERRETRATUZAHARRA

San Antonio
Egunean,
Urkiolara!

Gaur egun oraindik ere ohitura handia dago San Antonio Egunean Urkiolara joateko. Lehenago, baina, ohitura bakarrik ez, San Antonio Eguna egun handia izaten zen.

Argazki zahar honetan San Antonio Eguna ospatzeko Urkiolaraino ibilaldia egin zuen neska-mutil koadrila ageri da. Gehienak auzokideak ziren, Isurietakoak. Tartean, gainera, Ametza aldeko baserritarrak dira nagusi: Txintxurretarrak eta Zaloñatarrak. Patxi Zaloña argazkiaz jabeak esan digunez, 1941. urtean ateratakoa da. Garai hartan, Patxi 16 urte zituen, eta ondo gogoratzen du Urkiolarako bidaia: "Orduan, gaur egun Londresera joatea moduko bidaia zen Urkiolarakoa... Ni urte hartan -1941. urtean- joan nintzen lehenengo aldiz Urkiolara, eta egun handia izan zela gogoratzen dut, pozik joan nintzen, benetan".

Patxi eta lagunek, jakina, oinez egin zuten Urkiolarako bidea. Isurieta-rik irten, eta Santa Agedara joan ziren lehenengo; gero, handik Tellamendi-



rantz egin zuten; eta handik, berriz, Anboto ostera, Pol-polera hain zuzen ere. Pol-polen oinetakoak aldatu zituzten: eleganteenak jantzi eta bidean urratutako zaharrak motxilan sartu zituzten; eta, azkenik, ia lau orduko ibilaldia egin eta gero, nekatuta, baina dantza batzuk egiteko gogotsu

ailegatu ziren Urkiolako Santutegira. Hori bai, aurretik, motxilan eramandako ogitartekoa jan eta zahatotik ardoa edan zuten.

Argazkian, goiko ilaran, ezkerretik hasita, Eusebio Gaztañaga, Basili Zuazua, Daniel Gaztañaga, Modesta Etxeberria eta Clemente Alberdi ageri

dira. Eta beheko ilaran, berriz, ezkerretik hasita, Patxi Gaztañaga eta Txintxurreta anai-arrebak daude: Máxima, Isidro eta Eujeni.

Argazkia: Patxi Zaloña

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Haurtzaindegi
berria egin
zuten herrian

Aurten, haurtzaindegia egin dute herrian: Pausoka haurtzaindegia, hain zuzen ere. Belorrietako kalean, herrian egin dituzten azken etxebizitzaren erdian egin zuten herriko umeendako haurtzaindegia. Eta, hala, inaugurazio ekitaldia urriaren 19an egin zuten. Pausokako eraikin berriak, beheko aldeko gunea kontuan hartu barik, hiru solairu ditu.



≈ 2000

Belorrieta kalean etxebizitzak egin zituztenean, lorategiak eta aulkiak jarri zituzten espaloietan.



2002

Hasieran, iskanbila ugari izan ziren haurtzaindegiaren kokalekua zela-eta. Azkenean, baina, arazo barik egin zuten eraikina.

Jou Díaz



Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Zorionak eta
urte berri on!



Okindegia - Gozotegia

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Aretxabaleta

Okindegia - Gozotegia

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Aretxabaleta

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

**2003 urte gozo-gozoa
opa dizuegu!**

Okindegia - Gozotegia

Okindegia - Gozotegia

Okindegia - Gozotegia

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Aretxabaleta

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.




Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Asuncion 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

